

ASTE NAGUSIAK GAZTEENAK GASTRONOMIAREKIN GOZATZERA ANIMATZEN DITU

“FAMILIAN SUKALDATZEN” II. GASTRONOMIA LEHIAKETA 8-14 urte bitarteko haurrekin

Hilabete besterik ez da falta Aste Nagusia eta, horrekin batera, lehiaketa gastronomiko herrikoiak iristeko.

Duela gutxi sortu da “**Familian Sukaldatzen**” lehiaketa gastronomikoa. 2023an bigarren edizioa egingo da, **Eroskiren babesarekin eta BCC Culinary Club eta CC Garberaren laguntzarekin.**

Lehiaketa 2-4 lagunez osatutako taldeei zuzenduta dago. Horietatik % 50, gutxienez, 8-14 urtekoak izango dira, eta gainerakoak, 1 edo 2 pertsona, 14 urtetik gorakoak. Abuztuaren 18an, Aste Nagusiko ostiralean, finala ospatuko da, Gipuzkoa plazan, 18: 00etatik aurrera. Finalean gehienez 18 taldek parte hartu ahal izango dute.

Izena eman duten taldeak 18 baino gehiago badira, finalurreko bat jokatu da uztailaren 29an Garbera merkatal gunean., **EROSKik** aurrez prestatu duen supermerkatuan osagaiak aukeratu ondoren, entsaladarik onenak prestatzen dituzten taldeak iritsiko dira finalera.

Talde hautatzaileek osagai nagusia arrautza duen errezeta bat aurkeztu beharko diote antolakuntzari, finalaren egunean prestatzeko.

Lehiaketak sari hauek ditu:

1. saria:

- 200 € Eroskin erosteko txartela eta Txapela
- Aste Nagusiko sukaldariaren jaka eta diplomak
- Talde irabazleko kideentzako bazkaria Garberako Terracity jatetxean
- Talde irabazleko kideentzako sukaldaritza tailerra BCC Culinary Cluben

2. saria:

- 150 € Eroskin erosteko txartela
- Amantalak eta diplomak

3. saria:

- 100 € Eroskin erosteko txartela
- Amantalak eta diplomak

#DONOSTIA #SAN SEBASTIÁN FESTAK

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak <https://astenagusia.donostiakultura.eus> helbidean kontsulta daitezke.

Izen-ematea online egingo da (<https://astenagusia.donostiakultura.eus/eu/parte-hartu>), dagokion formularioa betez edo Eroski supermerkatuetan, **uztailaren 21a baino lehenago**.

Donostia, 2023ko uztailaren 4a

Antolatzailea / Organiza:



Babesle / Patrocinador:



Laguntzaileak / Colaboran:

